M 26 TOLOSAKO ELKARREKIN PODEMOS ETA PP-KO ALKATEGAIAK // 4

tolosaldeko ataria

OSTEGUNA
2019/05/09
7. urtea, 1.053. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

Targazkik seigarrenez antolatu du Tolosa Herria Nazioarteko Argazki Lehiaketa

Azken urteotan egin bezala, tolosar onenak ere sarituko dituzte, eta sari nagusia Argizaiolarako parte hartzea izango da; maiatzaren 26ra bitarte bidali ahal izango dira lanak, gai librean // 3

Tolosako Casino elkartean eman dituzte aurtengo xehetasunak. I. SAIZAR

REAL SOCIEDAD

«Beraiei irabazteko partida perfektua egin behar dugu»

NEREA EIZAGIRRE REALEKO JOKALARIA

Datorren igandean Espainiako Kopako finala jokatuko dute, Atletico Madrilen aurka, Granadan; ligako azken partidan ere haiek izan dituzte aurkari eta, beraz, madrildarren akatsetara joz, beren hutsuneak betetzen saiatuko dira, // 7

«Musikak ezin du izaera ludiko soila izan; eduki politikoa transmititu behar du»

EZTANDA
MUSIKA TALDEA

Bi urte eta erdiko ibilbidearen ondoren, 'Errua norena da?' diskoa aurkeztuko dute, etzi, Bonberenean // 2

Arana Irastorzaren omenezko plaka ostu dute, Polloetik

1936ko gerran Zizurkilen erail zuten donostiarra, eta Zizurkilgo Udalak ezarri zuen plaka, uztailean; senideak eta udal ordezkari zizurkildarrak «haserre» azaldu dira // 6

107.6 fm · www.ataria.eus
OSTEGUNA, 2019ko maiatzaren 9a

JOSU ARTUTXA

«Duguna esateko lehen saiakera bat da; gizakiari egindako kritika bat»

UNAI SUKIA, MIKEL ROMERO, ION GARATE ETA AITOR AZKOLAIN EZTANDA TALDEKO KIDEAK

Ofizialki bi urte eta erdi daramatzatenean, 31 kontzertu eskaini dituzte Euskal Herriko hainbat txokotan. Ilusioz daude, larunbatean 'Errua norena da?' izeneko diskoa Bonberenea gaztetxean aurkezteko.

Josu Artutxa Dorronsoro

1996an jaiotako lau gaztek musikan aurkitu zuten, euren ideiak eta zaletasunak batzeko jomuga. Duela gutxi sortu zuten Eztanda taldea, Ion Garate bateria jotzaile belauntzarrak, Unai Sukia baxu jotzaile tolosarrak, Aitor Azkolain gitarra jotzaile ibartarrak eta Mikel Romero gitarra jotzaile eta abeslari tolosarrak.

Azken urteetan zuen izena gehiago entzun bada ere, noiz sortu zenuten taldea?

Ion Garate: 2015eko kuadrilla egunean hasi ginen. Unai, Aitor eta hirurok bildu, eta talde bat sortzeko ideia proposatu genuen, entretenitzeko asmoz.

Aitor Azkolain: Lehen kontzertuak 2016ko udan eskaini genituen, baina urte zaila izan zen, ni eta Ion Erasmus programarekin kanpora joan ginelako, epe desberdinetan, gainera.

Mikel Romero: Entseguak hainbat lokaletan tartekatu izan ditugu. Aurten, Ibarrako Udalak pabiloi batean entseatzeko aukera eskaini zigun. Baliabide eta erosotasun aldetik, askoz ere hobeto gaude orain gauden lekuan.

Zerbaitek edo norbaitek eztanda egitea nahi zenuten?

I. G.: Taldearen izena, egia esanda, *brainstorming* batetik sortu zen. Bakoitzak bere izen gustukoenak hautatu zituen, eta bat egiten zutenen artean bat aukeratu behar izan genuen.

Zein musika estilorekin identifikatzen zarete?

I. G.: Egun, dauden genero eta azpi-generoekin, oso zaila da bat aukeratzea. Askotan, kantu berean genero bat baino gehiago izaten dira. Gure abestiek metal-rock ukituak dituzte, baina, bakar batean, erritmo eta melodia desberdinak aurki daitezke.

M.R.: Denborarekin, gu ere aldatzen goaz. Maketak eta diskoak, adibidez, ez dute zerikusirik.

I. G.: Eraginek asko markatu gaituzte. Gaztetatik, punk-a izan dugu erreferente, baina hori ere aldatzen joan da.

Unai Sukia: Azkenaldian, metal taldeak entzuten ditugu, nahiz eta gero gustuko duguna jotzen dugun; eta hori gogorra edo lasaia izan daiteke

Eskualdean ez ezik, Euskal Herrian zehar ere eskaini dituzue kontzertuak.

I. G.: Bizkaian izan ezik, herrialde guztietan jo dugu. Gehienetan, herriko festetan eta elkartasun kontzertuetan izan da.

U. S.: Azkainen bizi genuena izugarria izan zen. Bazkaloste batean jotzeko gonbidatu gintuzten eta, noski, hori ez dator bat gure ohiko estiloarekin. Publikoak, gainera, ordu berean, bertan jokatzen ari zen futbol txapelketa bati erreparatzen zion.

M. R.: Orain arte bertsioak jotzen aritu izan gara, eta horrek bere pisua du, erakargarriagoa baita. Orain erronka handia dugu: gure kantuak kontzertuetan jotzea.

U. S.: Askok zure abestiengatik entzun nahi izaten zaituzte. Lan handia eskatzen du, eta denbora eskaini behar zaio. Gutxitan izan bada ere, kontzertuetan gure kantuak abestu izan dituzte.

Aipatu duzuenez, bertsioetatik abesti propioetara igaro zarete. Hori berezia da, ezta?

M. R.: Oso berezia da. Euskal Herria oso bertsionista izan da beti. Jendeak kantuaren letra dakienean, eta gustuko duenean, nabaritzen da, eta errazagoa da konektatzea eta motibatzea. Orain transmititzea lortu nahi dugu, baina gure abestiekin.

Abenduan, Eztanda izeneko maketa bat aurkeztu zenuten. Froga moduko bat izan zen?

I. G.: Eskerrak egin genuen! Bestela, diskoa grabatzerakoan ez genuen ezer egiten jakingo.

M. R.: Konfiantza aldetik ere, teknikari bat gainean izateak, eta uneoro tentsioan egoteak, errespetu handia ematen du.

U. S.: Intentzioa diskoa ateratzea zen. Hala ere, ondo etorri zitzaigun aurre lanketa bat egitea.

Nolakoa izan da diskoa grabatzearen prozesua?

I. G.: Propioak diren 20 bat abesti ditugu. Baina, euren artean antzekotasun bat zuten 6 hautatu behar izan genituen diskorako.

A. A.: Abestiak aukeratu ondoren, moldatu ere egin genituen.

M. R.: Gure ibilbidea ere desberdina izan da, diskoa aurkeztu aurretik, bertako kantuak kontzertuetan jo izan ditugulako.

Nori dagokio sormen lana?

M. R.: Gehienbat Ion aritzen da horretan, eta guretzako hori oso erosoa da. Letren kasuan, bakoitzak bere ideiak aipatzen ditu, eta denon artean osatzen ditugu.

U. S.: Diskoko kantu gehienak dira Ionenak. Dena den, besteok ere kantuak sortu izan ditugu.

Zuek galdetzen duzuen moduan, norena da errua?

U. S.: Galdera erretoriko bat da.

I. G.: Gizakiari egiten diogun kritika bat da, gizarte barruan nahiz kanpoan, diskriminazioarekin eta naturaren suntsipenarekin gertatzen denaren ingurukoa.

M. R.: Legeez edota esplotazio kapitalistaz ere aritzen gara. Azken finean, duguna esateko lehen saiakera bat da diskoa.

U. S.: Hala ere, ez goaz geure burua justifikatzera.

Mina edo minbizia bezalako hitzak aipatzen dituzue, kutsu negatiboa dutenak. Zer aldarrikatzen duzue?

U. S.: Eduki, diseinu eta itxura malenkoniatsua duen diskoa da, askotan ikusten ez dena.

M. R.: Ez da ikuspegi negatibo bat, baizik eta errealista. Musikak ezin du izaera ludiko soil bat izan, eta eduki politikoa transmititu behar du.

Aurrerago lan berrietan murgiltzeko ideia duzue, ala atseden hartu nahiko duzue?

A. A.: Zerbait gehiago nahi dugula antzematen dugu, abesti berriak sortu nahi ditugula. Gorputzak esan beharko du zer den komenigarriena guretzat. Une honetan, diskoa aurkeztea besterik ez dugu buruan.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

IRAGARKI LABURRAK

Zerbitzaria

Tolosaldea. Taberna batean zerbitzari bat behar da. Interesatuek, dei dezatela 647 446 363 zenbakira.

Tolosaldea. Asteburuetarako zerbitzaria behar da. Interesatuek, 605 727 730 telefono zenbakira deitu edo beartzana@beartzana.com helbidera idatzi behar dute.

Operadorea

Abaltzisketa. Logikaline enpresak operadore bat bete behar du, lanaldi osorako. Kontratua 6 hilabetekoa da, eta gaztelera, euskara eta ingelesa menperatzea eskatzen da. Interesa duenak, 943 318 606 zenbakira deitu edo *rrhh@logikaline.com* helbidera mezua idatzi behar du.

Kamioi gidaria

Tolosaldea. Olaso Elkartea S.L. enpresak, LC+E gidabaimenak eta CAP-a duen esperientzia duen kamioi gidaria behar du. Baldintza onak eta epe luzeko kontratua eskaintzen dira. Interesa duenak, 627 197 524 telefono zenbakira deitu behar du.

Martxan da Tolosa Herria Nazioarteko Argazki Lehiaketa

Maiatzaren 26rako aurkeztu beharko dira argazkiak, bakoitzak, lau gehienez; gaia eta parte hartzea librea izango da, eta modu digitalean entregatu beharko dira.

Irati Saizar Artola Tolosa

Targazki Tolosako Argazkilari Elkarteak, seigarrenez, Tolosa Herria Nazioarteko Argazki Lehiaketa antolatu du. Targazkiren asmoak, «Tolosan argazki kultura areagotzea eta, era berean, Tolosa herriaren izenak argazkilaritzan oihartzuna izatea» dira.

Aurreko ekitaldietan bezala, aurten ere, gaia eta parte hartzea libreak izango dira: «Edozein argazkilarik aurkez dezake bere lana, hemen jaioak izan, zein atzerrian», azaldu dute antolatzaileek. Lanak digitalean bidali beharko dira, maiatzaren 26a baino lehen. Parte hartzaile bakoitzak, gehienez, lau argazki bidali ahal izango ditu.

Ekainaren 1ean aterako da epaia, eta sari banaketa ekainaren 15ean egingo dute, Tolosako Casinoan, 12:00etan. Aldi berean, lehiaketan puntuazio altuena lortu duten argazkien bi erakusketa inauguratuko dituzte. Batean, lehiaketa orokorrean puntuazio altuena lortu duten 40 argazki erakutsiko dituzte eta, bestean, argazkilari tolosarren lanak erakutsiko dituzte; 20 hoberenak.

2017ko gazteen lehiaketako argazki irabalea, Manex Bengoarena. M. BENGOA

Aurten, antolatzaileak ahalegin berezia egiten ari dira, tolosarren presentzia areagotzeko. Adin nagusikoez gain, duela bi ekitaldi hasitako tolosar gazteen atalarekin ere jarraituko dute.

SARIAK

Hiru kategoriatan banatuko dituzte sariak: orokorrak, bertakoak eta gazteak.

Orokorren kasuan, lehen hiru postuetan geratzen direnek, Argizaiolarako kredentzialak lortuko dituzte. Horrez gain, irabazleak 500 euro eta domina irabaziko ditu; bigarrenak 200 euro eta z domina; eta, hirugarrenak, 100 euro eta domina.

Tolosarrei dagokienez, berriz, 200 euro eta domina irabaziko ditu lehenak, eta bigarren eta hirugarren egiten dutenek 100 euro eta domina bana jasoko dituzte.

8 eta 16 urte bitarteko gazte tolosarren artean, lehenak domina eta argazki materialetan gastatzeko 100 euroko saria eskuratuko ditu, eta bigarren eta hirugarren sailkatuek domina bana eskuratuko dute.

Aralarrerako proposamena aurkeztu du Landarlanek

Ingurumenaren zein abeltzainen mesedetan, azkenaldiko «gatazka soziala» konpondu nahi dute

Erredakzioa

Aralar Natur Parkeko erabiltzaile guztientzat «zentzuzkoa eta legezkoa den kudeaketa jasangarrirako proposamen eraikitzaile bat» prestatu duela iragarri du, Landarlan Ingurumen Elkarteak. Proposamen hori Gipuzkoako Foru Aldundiari, Enirio-Aralar Mankomunitateari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari bidali diete, baita alderdi politikoei ere.

Landarlanetik horrela kokatu dute txostena: «Proposamena ez da soilik ingurumenaren kontserbazioaren mesedetan eginikoa, bertan larratzeko eskubidea duten abeltzainen mesedetan eginikoa ere bada. Zinez sinesten dugu, azken urteetan sortu den gatazka sozialari irtenbidea bilatzeko dokumentu egokia dela; honenbestez, Aralarren erabiltzaile guztientzako mesedegarria dela».

Hainbat proposamenen artean, «Enirio Aralar Mankomunitateko lurretara dauden sarrera guztiak itxi, eta baimenduek bakarrik irekitzeko sartu-irten sistema bat ezartzea» proposatu dute. Baita mankomunitateak eraiki dituen «legez kanpoko bi pistak lurrez estali eta bertako landareak birlandatzea» ere.

Maiatzeko kulturaldia abian, Berrobin

Maiatza osoan zehar kultur jarduerak antolatu dituzte Berrobiko hainbat eragilek; gaur, Berrobiko emakumeen arteko topaketak egingo dituzte

I. Saizar Artola Berrobi

Kulturaz gozatzeko hilabetea izaten da maiatza, berrobitarrentzat. Egitarau oparoa osatu dute eta, datozen egunotan, hitzaldiak, kirol ekimenak, azoka eta beste izango dira.

Gaur bertan, 10:00etan, Berrobiko emakumeen arteko topaketa egingo dute udaletxeko ekitaldi areto nagusian, eta Karmele Gurrutxagak zuzenduko du saioa: «Geure buruarekin eta geure sustraiekin topatzeko gonbidapena da». Gaur egun emakume izateak suposatzen duena aztertuko dute.

EGITARAUA

Maiatzak 9, osteguna

10:00. Berrobiko emakumeen arteko topaketa: geure izatea ezagutzen.

Maiatzak 11, larunbata

11:00. Haurren pilota partidak.
14:30. Crosffit: mugimendu funtzionalen bidez intentsitate altuan egindako ariketak. Izen ematea: www.berrobiibizia.eus.

Maiatzak 12, igandea

17:30. Haur eta helduen dantza emanaldia.

Maiatzak 15, asteazkena

17:30. Nola motibatu seme-alabak ikasketetan? Hizlaria: Idoia Apaolaza. Lekua: Udaleko ekitaldi areto nagusian.

Maiatzak 17, ostirala

19:00. Mendizaletasuna eta mendiari buruzko solasaldia. Non dago, non? Lekua: Begi-Urdin Gaztegunea.
21:00. San Isidro eguna ospatzeko afaria herriko baserritarrekin, Iriarte jatetxean (txartelak bertan salgai).

Maiatzak 18, larunbata

09:00. Berrobiko erreka garbitzeko auzolana. Ondoren hamaiketakoa.

Maiatzak 19, igandea

10:00-14:00. VIII.Udaberriko azoka: bertako produktuak, artisauak. saskigintza, literatura opari, karikaturak, pintxoak, musika, zozketa...
11:30. VI. Argazki Rally-ko sari banaketa.
12:00. Arranoen hegaldia eta erakustaldia.
13:00. XVII. Literatur lehiaketako sari banaketa.

Maiatzak 21, asteartea

17:00. Today we are teachers: haurren ingeles erakustaldia eta irakastaldia gurasoei. Lekua: Berrobiko eskolako psikomotrizitate gela.

Maiatzak 22, asteazkena

16:00. Jimnasia erritmikoko ikasleen emanaldia. lekua: Berrobiko eskolako psikomotrizitate gela.

Maiatzak 23, osteguna

19:00. Pin-pon eta dardo jolasak. Lekua: Begi-Urdin Gaztegunea.

Maiatzak 24, ostirala

22:00. Mendi-film emanaldia. Lekua: Begi-Urdin Gaztegunea. Sarrerak: Ordubete lehenago eskuragarri.

Maiatzak 25, larunbata

09:00. Mendi irteera Erroizpera.

Maiatzak 28, asteartea

16:45. Judoko ikasleen erakustaldia. Lekua: Berrobiko eskolako psikomotrizitate gela.

Maiatzak 30, osteguna

08:30. 'Gernika, infernuko barrika' jubilatuen irteera. Izen ematea: maiatzaren 20 eta 23 bitartean, 18:30etik 19:30era, Solastoki Elkartearen bulegoan (udal eraikineko beheko solairuan).
17:00. Marrazketa eta artelan aurkezpena Etxola Haur-Txokoan.

Maiatzak 31, ostirala

10:00 eta 17:30. Eskolako ikasleen musika eta antzerki emanaldia.

Udal hauteskundeetan,Tolosako herritarrek datozen lau urteetarako alkatea eta zinegotziak aukeratu beharko dituzte, 17 guztira. Egun, hiru alderdi daude udalean: EAJ (9), EH Bildu (7) eta PSE-EE (1). Beste behin ere, PPk hautagaia aurkeztuko du. Eta, aipatutakoez gain, alderdi berri bat ere izango da akatetzarako borrokan: Elkarrekin Podemos.

«Eraikin publiko berri bat nahi dugu, kalitatezkoa»

IÑIGO CABIECES ELKARREKIN PODEMOSEKO ALKATEGAIA

Alderdi moreko hautagaia, herritarren kezkak biltzen aritu da hilabete luzez. Era guztietako ideiekin, estrainekoz aurkeztuko da alkatetzara.

Josu Artutxa Dorronsoro

Iñigo Cabieces Casares (Portugalete, 1988) oso gaztea zela sartu zen politikan. Egun, Historia eta Geografia ikaslea eta haur baten aita da Tolosako alkategai berria.

Zein balorazio egiten duzu azken lau urteen inguruan?

Lotan igarotako lau urte izan dira. Hainbat politika aurrerakoi jorratzeko aukera paregabea genuen, baita herritarrek jarritako erronkak lantzekoa ere, baina ez dira egin. Ziur borondate politikorik egon ez delako izan dela.

Zeintzuk dira hurrengo lau urteetarako dituzuen proposamen nagusiak?

Hiribusaren zerbitzu egokia bermatzea beharrezkoa da, mugikortasunaren ardatza baita. Bestetik, bizikleten zerbitzu publiko bat ere proposatuko dugu. Usabal kiroldegiko kanpoko igerilekurako azpiegitura mugikor bat sortzea proposatzen dugu, neguan estalita mantendu dadin.

Zer proposatzen duzu alderdi ekonomikoari dagokionez?

Gazte enpleguan dag hutsune nabarmena. Asko atzerrira doaz, baldintza txarretan lanera. Datozen belaunaldiek bizitza hemen sortzea da asmoa. Hainbat gizarte lan daudenez, lan poltsa publiko bat sortu nahi dugu. Gainera, tokiko merkataritza sustatzen dugu, garrantzi handia baitu.

JOSU ARTUTXA

Eskualdean ozen entzuten da %100ean publikoa izango den ospitale baten aldeko apustua. Zein da zuen ikuspuntua?

Asuncion klinikako langileek baldintza duinak izan behar dituzte. Herritarrak ez dira bertako bezero hutsak, erabiltzaileak baizik. Eraikin publiko bat sortu behar dugu, kalitatea bermatuko duena. Lan Mahaia eratzea nahi dugu, erreferendum batekin.

Galtzaundi Euskara Taldeak bultzatuta, Tolosaldeko Euskararen Mahaia osatu da. Zer iruditzen zaizu?

Euskararen alde egiten den oro onuragarria da. Kaleko euskararen erabilerak behera egin du, gazteen artean. Erabilera bermatzen ez bada, euskara hondarhizkuntza izango da. Udalak, bestetik, euskararen aldeko apustua indartu behar du, aurrekontuetan eskuzabalago arituz.

Beste aldarrietako bat, erabakitzeko eskubidearena da. Zein iritzi duzu?

Lurraldetasuna erdigunean jarri behar da. Herritarren asmoak bultzatuko dituen prozesuak, errealista izan behar du. Adostutako erreferendum bat nahi dugu, betiere, errespetuz.

Tolosan gora egin dute birziklatze datuek. Zer proposatzen duzu horiei eusteko edota hobetzeko?

Gure helburua oinarriak sendotzea da, baina birziklatze tasa %80ra heltzearen aldeko aldarria egiten dugu. Ez da zilegi lege bat ezartzea, gero betetzen ez bada. Hondakinak biltzeko dugun sistema ez da txarrena, baina ezin gara horretan geratu.

M8ak greba egun arrakastatsuak utzi ditu bi urteetan. Zein politika defendatuko dituzu berdintasuna lortzeko?

Tolosan zorte handia dugu, eragile feministak asko ditugulako. Emakumeen etxea ekimen zoragarria da. Udaletxeak ere ikuspegi feministaren bat izan behar du, sail guztietan. Bestalde, haurren zaintza emakumeen gain jartzea saihesteko, udalak babestutako ekitaldietan, ludoteka zerbitzu bat jartzea proposatzen dugu.

Beste alderdien ezaugarri positibo bana aipatzerik bai?

Popularrek eta sozialistek guztiekin hitz egiteko ahalmena dute. EH Bilduk adostasunetara heltzeko borondate ona du. EAJk, berriz, herriko arazoak saihesteko ahalmen handia.

Gobernua osatzeko giltza izanez gero, zer egingo duzue?

Gure programa onartzen duenak jasoko du babesa. Egia da, orain arte defendatu ditugun ideia aurrerakoiak ez direla azken lau urteotan garatu.

«Dinamikek bultzatzen dute aurrera herri bat»

PEIO ATXUKARRO PP-KO ALKATEGAIA

Azken lau urteetan ez du inolako ezbeharrik ikusi. Hala ere, hobetzeko gauzak daudela nabarmentzen du, betiere, legeak errespetatuz gero.

Berez oiartzuarra bada ere, 30 urte baino gehiago daramatza Tolosan, Peio Atxukarro Agirrezabala (1955) argiketariak. Tolosa herri atsegina eta bizia iruditzen zaio, eta 2011n galdutako zinegotzia berreskuratzeko asmoa du.

Zein balantze egiten duzu azken lau urteen inguruan?

Hondakin bilketaren kudeaketan, bosgarren edukiontzia jartzearen erabakia txalogarria iruditu zitzaidan. Bestalde, auzo txikietako eraberritze lanek eta Fronton eraikinaren kudeaketak, hobetzeko asko dute.

Zer proposatzen duzu datorren agintaldirako?

Urteak dira udaletxean ordezkaririk ez dugula, eta informazio aldetik nahiko mugatuta gaude. Udalera heltzen banaiz, herritarrei galdeketa bat egitea proposatuko dut, etxez etxe, beraien kezkak eta eskaerak zein diren jakin eta dirua zertan xahutu nahi duten ezagutzeko.

Eta, alderdi ekonomikoari dagokionez?

Diru-iturri nagusietako bat zergak izango dira. Baina, dirua sortzeko, pertsona batek enplegua behar du. Herritarrak enpresetara erakartzeko neurriak hartu behar ditugu, eta horiei laguntzea instituzioei dagokie.

JOSU ARTUTXA

Azken urteetan ozen entzun da %100ean publikoa izango den ospitale baten aldeko aldarria. Zer diozu honi buruz?

Aurretik dugun osasun zentroa publiko egiteak gastu handia suposatzen du. Gure proposamena mantentzea da, baina gainerako eskualdeetan eskaintzen duten zerbitzu berarekin. Kudeaketa mota ez da garrantzitsuena, publikoa izateagatik ez baitu zerbitzu hobe bat eskainiko. Zerbitzua ona dela bermatu behar da.

Eta zein da Galtzaundi Euskara Taldeak bultzatutako Tolosaldeko Euskararen Mahaiari buruz duzun ikuspegia?

Euskara oso garrantzitsua da guretzat. Hizkuntza bat ez da urteetan egiten, gizaldietan baizik. Egunero elkar ulertzeko tresna bat da, zaindu beharrekoa. Horretarako lan-talde bat dagoela jakiteak pozten nau. Dinamikek bultzatzen dute aurrera herri bat, eta gurea adibide garbia da.

Zein iritzi duzu erabakitzeko eskubideari buruz?

Termino horri esanahi egokia eman behar zaio, maiz hartzen ditugulako erabakiak. Ados nago erabakitzeko eskubidearekin, baina ez autodeterminazioarekin. Konstituzioa errespetatu behar da, nahiz eta legeak aldatu.

Tolosan gora egin dute birziklatze datuek. Zein da asmoa: horiei eustea edo hobetzea?

Hobetzerik baldin bada, beti da ona. Lehen guztia poltsa berean sartu eta kale bazterrean uzten zen. Pentsa zein egoeratan gauden orain. Hala ere, badira hobetzeko zenbait gauza, askok ez baitute errespetatzen. Ikasten jarraituz, hobetuko dugu.

M8ak greba egun arrakastatsuak utzi ditu bi urteetan. Zein politika defendatuko dituzu berdintasuna lortzeko?

Berdintasunaren alde gaude, nahiz eta oraindik lan handia egin behar den. Mugimendu guztiak errespetagarriak iruditzen zaizkit. Ez gaude urruti, eta eboluzioa oso positiboa da. Ez dut ikusten gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago direnik.

Beste alderdien ezaugarri positibo bana aipatzerik bai?

Gizarteari zerbitzu bat emateko borondatea dute guztiek.

ELKARRIZKETAK OSORIK

Alkategaien elkarrizketa guztiak osorik irakurri ahal dira *www.ataria.eus* webgunean.

Aurrera Alegia taldearen aurkezpen ekitaldia, bihar

ALEGIA // Aurrera Alegia taldeak bihar, hilak 10, bere hautagaitza eta programa aurkeztuko ditu herritarren aurrean. Regina Sorarrain buru duen zerrendak, kultur etxean egingo du ekitaldia, 19:30ean hasita.

Sindikatuetako langile ordezkariekin bilera egingo du EH Bilduk

IBARRA // EH Bilduk sindikatu ezberdinetako langileen ordezkariekin kultur etxean bilera egingo du, 10:00etan, Tolosaldeko etorkizun sozioekonomikoaren eta lan egoeren inguruko kezka, ideia eta iritziak jasotzeko.

ZURIARRAIN ALKATEGAI

Amezketa Etorkizun taldeak Ainhoa Zuriarrain aurkeztu du zerrendaburu. Hainbat adinetako herritarrekin osatutako taldea da, eta jarduera ezberdinetan dihardute. Udaletxean esperientzia dute. Amezketako lehen emakumezko hautagaia da Zuriarrain. Helburuen artean: «Amezketa hobe bat izatea, eta herria indartzea, hau da, biziberritzea». Jarduera ekonomikoan sakonduko dute, baita nekazaritzan ere; etxebizitzen arazoari irtenbidea emango diotela esan dute. E. MAIZ

ASTEASU BATUZ

Hirugarren aldiz aurkeztuko da, Asteasu Batuz taldea, udal hauteskundeetara. Taldea «modu orekatuan» osatu dutela aipatu dute kideek: «Esperientzia duena, genero berdintasuna bermatzen duena, adin ezberdinak, eta lan esparru desberdinetan ezagutza dugun partaideak gara». «Lanerako gogotsu» dagoen talde bat osatu dutela aipatu, eta herritarrekin herria hobetzeko helburua dutela diote, horretarako parte hartze eta komunikazioa izango dituzte oinarrian. ATARIA

Tolosalderako ospitale publikoa eskatu du EH Bilduk

Tolosaldeko ospitale berri horren ezaugarriak zehazteko, azterketa bat egiteko konpromisoa hartu dute

Asuncion klinikaren atarian egin zuten agerraldia EH Bilduko hautagaiek. I. U.

Erredakzioa Tolosaldea

Koalizioak salatu du, Tolosaldea dela ospitale publikorik ez duen eskualde bakarra. Ospitale berri horren ezaugarriak zehazteko, azterketa bat egiteko konpromisoa hartu dute.

Gaur egungo kudeaketa pribatuak osasun arretan nahiz kalitatean eragina duela salatu dute, baita langileen lan baldintzak eskasak direla ere. Andu Martinez de Rituerto EH Bilduko Tolosako alkategaiak lehen arretaren garrantzia azpimarratu du: «Lehen arreta indartu behar da, osasun arreta kate osoak funtzionamendu egokia izan dezan». Ospitale berriari dagokionez, Asuncion klinikako langileak sare publikoan barneratzea proposatu du.

Amaia Azkue Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagaiak gaineratu du: «Gainerako eskualdeetako herritarrek bezala zergak ordaintzen ditugun arren, Osasun Sailetik ez dugu kalitate bereko osasun arreta jasotzen, eta gabezia hauek, sarritan, langileen profesionaltasunak estaltzen ditu». Ospitale publikoa nolakoa izango den zehazteko azterketa bat egin behar dela dio: «Gure osasuna gure erabakia den neurrian, Tolosaldeko udalek herriz herriko beharrak aztertu eta eskualdeko diagnostikoa osatzeko konpromisoa dugu». Juan Karlos Izagirre EH Bilduko ahaldungai nagusiak, berriz, «osasungintza publikoa, unibertsala, bidezkoa eta euskalduna» eskatu du.

EAJk ezinbestekotzat ditu «elkarlana eta adostasuna»

Tolosaldeko EAJk alkategaien aurkezpen ekitaldia egin du, Tolosan. Ekitaldian, Joseba Egibar Gipuzko Buru Batzarreko presidentea eta Markel Olano diputatu nagusirako hautagaia izan dira

Erredakzioa Tolosaldea

Tolosaldeko EAJ alderdiko alkategaien aurkezpen ekitaldia egin zuten, asteartean, Tolosan. Gipuzko Buru Batzarreko presidente den Joseba Egibar eta diputatu nagusirako hautagaia den Markel Olano ere izan ziren. Olatz Peon Tolosako alkategaiarekin batera izan ziren, eskualdeko hainbat alkategai: Ibarrako Itziar Jauregi, Villabonako Maite Izagirre, Zizurkilgo Trini Altimasberez, Irurako Ana Leunda, Anoetako Rafa Uribarren, Ikaztegietako Anton Elosegi eta Asteasuko Joseba Gomez.

Peonek azpimarratu zuen, EAJ alderdiak beti egin duela elkarlanaren aldeko apustua, eta «gainerako erakundeekin batera lanean» aritu direla, «herritarren interesen defentsan»: «Elkarlana eta adostasuna ezinbestekoak dira, are gehiago, gurea bezalako bailara batean, neurri, tamaina eta izaera ezberdineko 28 herriz osatuta dagoen eskualdean».

Markel Olanok herritarrek «bi estiloren» artean aukeratu behar dutela zioen, baina oso argi adierazi zuen, «etorkizuna EAJ dela».

Tolosaldeko EAJ alderdiko alkategai guztiak, agerraldiaren ostean. ATARIA

TOLOSAKO EAJ-K 58 PROIEKTU

Olatz Peon Tolosako alkategaiak egin du udal hauteskundeetako programaren aurkezpena. Bost ardatzetan banatu dute programa: ongizatea; ekonomia eta enplegua; hirigintza eta azpiegiturak; nortasunaren babesa; eta euskara eta gobernu ona.

Joan den agintaldian «momentuko eta etorkizuneko proiektuak» garatu dituztela dio. Horrela, momentuko nahiz etorkizuneko erronkei erantzun diote, Peonen hitzetan. «Diagnostiko bat egin eta herriaren beharrak zein diren oso argi edukiz, tolosarron iritzi eta ekarpenak jasoz landutako programa da».

Ardatz bakoitzeko proposamen zehatzak landu dituzte, 58 guztira. «Momentu oro tolosarrak erdigunean kokatu ditugu, gure hauteskunde programaren helburu nagusia delako tolosarren beharrei erantzutea», azaldu zuen. Gaineratu zuen, herritarren beharrak ikusi eta proiektu berriak bultzatu behar direla, baliabideak eraginkortasunez eta zorroztasunez kudeatuz: «Datozen lau urteei begira, proiektu eta egitasmo berriak landu ditugu, ekindako bide horri jarraipena emateko».

107.6 fm · www.ataria.eus
OSTEGUNA, 2019ko maiatzaren 9a

Jose Arana Irastorzaren plaka lapurtu dute Polloeko hilerritik

Zizurkilgo Udalak familiaren baimenarekin jarri zuen oroitarria, iazko uztailean; Arana Irastorza 1936ko irailaren 17an erail zuten Zarateko Bentan, Zizurkilen.

Asier Imaz Zizurkil

Jose Arana Irastorza Espainiako gerran hildako EAE-ANVko lehenengo gudaria izan zen, eta Zizurkilgo Zarateko Bentan erail zuten, 1936ko irailean. Iaz, Zizurkilgo Udalak bere omenez plaka bat jarri zuen Donostiako Polloe hilerrian, eta atzo eman zuten jakitera, lapurtu egin dutela.

Arana Irastorzaren iloba da, Josetxo Arana. Herenegun jaso zuen albistea: «Polloetik deitu zidaten, plaka Aste Santuen aurretik falta zela esateko. Zizurkilgo Udala jakinaren gainean jarri zuten, eta deitu egin ziguten, berriro jartzeko baimena eman behar baitugu. Gure artean hitz egin dugu, eta ez dago arazorik».

Arana familiaren panteoia, Polloen, plaka lapurtu ostean. I. AGIRRE

Aranak azaldu du «koldarkeria izugarria» iruditzen zaiola: «Atsekabea, haserrea, amorrua, inpotentzia sentitu nituen berria jasotakoan. Hilerri batean, gainera. Familiaren panteoian zegoen». Joxe Mari Luengo Zizurkilgo alkateak ere haserrea erakutsi du: «Penagarria da. Memoriaz hitz egiten dute, baina batzuek alde batera bakarrik daukate memoria; berriro jarriko dugu plaka, lehen gudaria zelako, eta gudari guztiak oroitzeko».

Eraso matxisten aurkako protokoloa aurkeztuko dute

IBARRA // Ostiralean, 17:00etan, Ibarrako plazan, eraso matxisten aurkako herri protokoloa aurkezteko prentsaurrekoa eskainiko du, Ibarrako Gazte Asanbladak. Eraso sexisten aurrean zein bide hartu jakiteko, protokoloaren nondik norakoen berri emango dute.

Odola emateko aukera izango da, ostiralean, Berastegin

BERASTEGI // Ostiralean, 18:00etatik 20:30era bitarte, odola emateko aukera izango da, Berastegiko eskolan. Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak betiko odol emaileak gonbidatu nahi izan ditu, eta behin ere eman ez duten horiek anima daitezela eskatu dute.

Saihesbidearen alde bilduko dira, Joxe Arregi plazan

ZIZURKIL // Larunbatean, 12:30ean, saihesbidearen aldeko kontzentrazioa egingo dute, Zizurkilgo Joxe Arregi plazan. Lehentasuna dela diote, egunean 10.000 ibilgailu baino gehiago igarotzen direla, eta kutsadura eta osasun arazoak ekar ditzakeela salatu nahi dute.

Hondakinak ateratzeko ordutegia zabaldu dute

Eguneko edozein ordutan atera ahal izango da, txartel bidez, organikoa eta errefusa, Ibarran; organikoa egunero, eta, errefusaren kasuan, astean behin.

I. Saizar Artola Ibarra

Ibarrako Udalak zabaldu egin du organikoaren eta errefusaren edukiontziak txartel bidez irekitzeko ordutegia. Hiri-hondakinen birziklatze portzentajea handitzeko helburuarekin, eta osasungarritasun zein garbitasun baldintzak mantentze aldera hartu dute erabakia.

Atzotik hasita, nola hondakin organikoa, hala errefusa, eguneko edozein ordutan atera ahal izango dute herritarrek, dagozkien edukiontzietara; organikoaren kasuan egunero, eta errefusaren kasuan, astean behin. Etxean pixoihalak dituztenen kasuan, errefusa ere egunero eta edozein ordutan atera ahal izateko aukera dute. Horretarako, txartela behar bezala aktibatu beharko dute.

Ordutegi zabaltze horrez gain, udalak hondakin organikoa ateratzeko baldintzak gogorarazi nahi izan ditu: «Hondakin organikoa poltsa konpostagarrian sartu, eta korapilo bat eginda bota behar da edukiontzira; poltsa konpostagarriak erabili behar dira nahitaez, bestela ez baita konpostaje plantan onartuko, eta soilik materia organikoa sartu behar da».

Hartutako erabakiekin, herriko txukuntasuna eta bizikidetza bermatu nahi ditu udal taldeak, eta, batez ere, «eragiten duten kaltea ahalik eta txikiena izan dadin», hondakinen kudeaketarekin zerikusia duten beste hainbat informazio gogorarazi dituzte. Bolumen handiko hondakinak edukiontzien ondoan utzi behar dira, eta ateratzeko eguna zehaztuta dute: asteazkenetan, 20:00etatik aurrera atera behar dira, ostegunean bildu ditzaten. Aurrez, udaletxean jakinarazi behar da. Hondakin arriskutsuak San Inazio auzoan dagoen etxolan utzi behar dira, baita pilak ere. Azken horiek laster herriko komertzioetan jarriko dituzten kaxetan bota ahalko dira. Azkenik, garbigunea ere erabilgarri dagoela gogorarazi nahi dute, etxeko obra hondakinak, etxetresnak, bolumen handiko altzariak, paketatzeak eta txatarra biltzeko; Tolosako San Blas auzoan dago garbigunea.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria n jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!
TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

«Konbentzituen ateratzen den taldeak izango ditu gauzak alde»

NEREA EIZAGIRRE REALEKO JOKALARIA

Atletico Madrilen aurka jokatu berri du Realak, ligako azken partida. Espainiako Kopako finalean ariko dira, berriro, elkarren aurka. Eizagirrek irabazteko aukerak dituztela dio.

Nerea Eizagirre, eskuinean, Atletico Madrilen aurkako partidan. REAL SOCIEDAD

Imanol Garcia Landa Tolosa

Espainiako Koparen finala jokatuko dute, Realak eta Atletico Madrilek, larunbatean, Granadan. Bertan izango da Nerea Eizagirre (Tolosa, 2000) Realeko futbolaria.

Bukatu duzue liga, eta zazpigarren amaitu. Nolako balantzea egiten duzu?

Denboraldi ona izan dela uste dut. Taldea asko hazi da, taldea gaztea da, eta uste dut asko ikasi dugula. Urte polita izan da, Kopako finalera iritsi baikara, eta ligan zazpigarren geratzea postu ona da. Aurten jokatutako partidetan, ez dugu izan erraz irabazi digutenaren sentsaziorik. Partida guztiak lehiatu ditugu eta, alde horretatik, uste dut taldea asko hazi dela.

Eta, nola ikusi duzu zeure burua?

Ni gustura nago. Beti daude hobetzeko gauzak, baina, uste dut azken zati honetara ondo iritsi naizela. Gustura nabil azken bolada honetan, eta sentsazioak onak dira. Azkenean, jokalari baten sentsazioak onak direnean, gero, errealitatean, maila eman behar den unean, errazago ibiltzen zara.

Ligako azken partida Atletico Madrilen aurka jokatu zenuten, eta galdu. Ligako partida, edo larunbateko finala zenuten buruan?

Taldeak argi zuena zen, gauzak ondo egin behar genituela. Partida horretatik ahalik eta gauzarik onenak jaso nahi genituen, eta baita informazioa ere; bai beraiek dituzten alde onak, bai txarragoak. Orain, planteatuko dugu zer egin eta, behintzat, gauzak argi izatea. Atletico Madrilek izugarrizko taldea duela badakigu, eta alde txarrak aurkitzea zaila dela. Liga irabazi du, izugarrizko jokalariak ditu...

Nik uste dut gure taldeak sentsazio onak izan zituela azken partida honetan. 1-3 galdu genuen, baina hortxe ibili ginen. Argi dugu non egin diezaiokegun min; gero guri min egin ziguten alde horietan hobetu beharko dugu. Defentsan ondo bagaude, eta kontraerasoan ditugunak sartzen baditugu, hortxe izango dugu aukera. Final batean %50 da beraientzat, eta %50 guretzat, eta zelaian ikusi beharko da zeinek irabaziko duen. Hori bai, beraiei irabazteko, partida perfektua egin behar dugu.

Nola bizitzen ari zarete astea?

Egia da aste berezia dela. Tentsioa nabari da. Gauero, ohera sartzerakoan, partida bisualizatzen ari zara, zer gertatuko den, zer ez... Nerbio horiek hor daude, baina, nire aldetik behintzat, oraingoz lasai nago. Gerturatu ahala iritsiko dira urduritasunak, baina nik uste dut taldeak lasai egon behar duela. Gauden lekuan gaude, meritu propioengatik. Taldeak gauzak ondo egiten daki. Nik uste dut konbentzituen ateratzen den taldeak izango dituela gauzak alde.

Zaletuak ere joango dira animatzera.

Oraingoz, 1.500 pertsona inguru joango dira. Guk ere nabaritzen dugu jendea gurekin dagoela; Granadara joan ezin duena ere gertu sentituko dugu, eta hori garrantzitsua da.

Larunbateko finalarekin denboraldia bukatuko duzu?

Realari dagokionez, bai. Gero, udan, Europako Txapelketa dago, 19 urtez azpikoena. Ekainaren bukaera aldera egingo dute deialdia, Espainiako selekziotik, gero uztailean jokatzeko. Beraz, Realarekin denboraldia bukatu ondoren, opor batzuk hartu, deskantsatu, eta gero, berriro, Espainiako selekzioarekin.

Oraindik deialdia eginda ez badago ere, aukera handiak izango dituzu joateko, ezta?

19 urte azpiko eta 17 urte azpiko deialdi guztietan egon naiz orain arte, beraz, aukerak hor daude. Gero, noski, ikusi egin beharko da sartzen garen ala ez. Garrantzitsua da klubean gauzak ondo egiten joatea. Nik uste dut, pertsonalki ere pauso bat eman dudala aurten, eta horrela jarraitu behar dudala.

Hain justu, Europakoa bezalako txapelketak jokatzeak ere eskarmentua ematen du lehiakortasunean , ezta?

Azkenean esperientziak dira. Horra joaten garen 18 edo 20 jokalariak, urte osoan zehar egindako lanaren ondorioz goaz. Garrantzitsua da egunerokoan egiten duguna; nire kasuan, Realean. Opari bat da Europako Txapelketa bat edo Munduko Txapelketa bat jokatzea: bizipen berriak, beste klubetako jokalariekin zoaz elkarlanean aritzea... Zuri gustatzen zaizuna eginez, bidaiatu eta esperientzia berriak bizitzeko aukera baduzu, zer gehiago espero dezakezu?

Igoera ospatzen

Aulkitik

Mireia Igartua
Tolosa CF, Euskal Liga

Aurreko astean gure lanak egin, eta bigarren mailarako igoera erdietsi genuen. Honen haritik, Tolosako nesken festa hasi zen, igoera urte askoren lanaren isla dela argi utziz. Hala ere, oraindik ligako azken partida geratzen zitzaigun eta, nahiz eta aste berezia izan, liga sentsazio onenekin bukatu nahi genuen, ondoren kopan horrela jarraitzeko asmoz.

Bagenekien, igandea egutegian koloreztatuko genuen beste egun berezi bat izango zela. Goizean goiz, 2 autobus abiatu ginen Gasteiz aldera. Bertan, partidaren hasieran, txapeldunen kopa jaso genuen, eta, salto batzuk egin ondoren, partida hasi zen. Hasi bezain pronto, nabari zen zelaira lasaiago atera ginela, ez baikenuen ordura arte eduki genuen presiorik. Partida guztian zehar ez genuen gure jokoa egitea lortu eta, ondorioz, 3-1eko emaitzarekin amaitu zen. Azpimarratzekoa da, oraingo honetan inoiz baino laguntza, indar eta animo gehiago jaso genituela, hara hurbildu ziren jarraitzaileen eskutik.

Tolosarako itzulera kantu eta algara artean izan zen. Iritsitakoan, udaletxean, Olatz Peon alkatea eta hainbat zinegotzi harrera egiteko zain zeuden, baita bertara gerturatu ziren hainbat herritar ere. Olatzek, zoriontzeaz gain, lortu dugun maila berri honetarako animo eta babesa eman zigun eta, ondoren, jokalari, entrenatzaile zein gurasoak bazkaltzera joan ginen. Bazkalondoren, urteko irudi eta une hunkigarriak gogora ekarri genituen, eta jokalari eta nesken bidea errazten duten arduradunek, entrenatzaileen eskutik, oroigarria jasoz eman genion amaiera bazkariari.

Harrera egin zieten Tolosa CF–ko kideei udaletxean. ATARIA

Baina, eguna bukatu aurretik, gorputza mugitzeko unea zen eta, horretarako, ez zegoen modu hoberik, Tolosako kaleetan zehar musika eta gure ahotsak entzutea baino.

Behin liga bukatuta, datorren larunbatean, 17:30ean, Usabalen Bizkerre B-ren aurka jokatuko dugu, kopako lehen partida. Bertan ikusiko garelakoan.

Aupa Tolosa!

EGUNA, 2019KO MAIATZAK 9
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46

www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA 107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
Tolosaldeko gizarte eragileak

Tolosako dendetan online erosteko, 'gogoko.eus'

Saltoki txikiek internet bidez salduko dute; 24-48 orduan etxeraino bidaliko dute erosketa.

Asier Imaz Tolosa

Trianguloan aurkeztu zuten 'gogoko.eus' plataforma berria. A. IMAZ

Tolosa&Co elkarteak bere ibilbidean egindako «apusturik garrantzitsuenetakoa» aurkeztu du. Tolosako saltoki txikiek euren produktuak online jarri dituzte salgai, *Gogoko.eus*-en bidez. Ondorioz, webgunean, Instagram-en eta Whatsapparen bitartez egin ahalko dira erosketak.

Gogoeta luze baten ondoren eman dute saltoa, erakusleiho digitalera. Elkarteko saltokiei ikusgarritasuna ematen eta merkatu berrietara zabaltzen jarraitzeko modutzat jo dute, baina, argi utzi dute, ez dutela Tolosara erosketak egitera bertaratzearen ordezkapen bat izaterik nahi.

FUNTZIONAMENDU ERRAZA

Gogoko-ren Instagram profilean (*@gogoko.eus*) eta webgunean (*gogoko.eus*) bertako saltokien produktu berriak argitaratuko dituzte, astero-astero. Bertan azalduko dute zein saltokietakoa den, marka eta prezioarekin batera. Erabiltzaileak, Instagram edo Whatsapp bitartez, *Maialen*ekin (zalantzak argitzeko sortu duten tresna) harremanetan jartzeko aukera izango du, eta arreta pertsonalizatua eskainiko du, zalantzak argitzeko.

Gustuko produktua aukeratu eta gero, ordainketa kreditu txartel bitartez egingo da eta, 24-28 orduan, erabiltzaileak nahi duen helbidean jasoko du Gogoko-ren kaxa. Bidalketa gastuak doakoak izango dira, eta penintsula osora egingo dute banaketa. Produktuak itzultzeko Gogoko-ren banaketa zerbitzua erabil ahalko da, edo saltokira bertaratu.

ORIA BEILATOKIA
TANATORIO
Usabal Ind., 12· 20400 Tolosa
943 69 75 79
www.funerariaoria.com

OSTEGUNA 09

AGENDA

Deialdiak

Berrobi. 10:00etan, pleno aretoan, Berrobiko emakume arteko topaketa egingo dute: *Geure izatea ezagutzen*.
Ibarra. Izaskungo erromeria, Bizi-Nahi elkarteak antolatuta. 11:30ean irtengo dira.
Tolosa. 10:00etan, kultur etxean, ospitale asistentzia txostenen irakurketa, ulermen eta erabilera ikastaroa.
Larraul. 19:00etan: *Mugimendua: XXI. mendeko txertoa eta ibuprofenoa*. Balio anitzeko gelan..

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, solasaldia helduak eta gazteekin, Joxemari Iturralderekin Astero liburu bat, Tolosaldea Garatzenen tartea eta Joxemi Saizarrekin Tolosaldeko pertsonaia historikoa.
11:00. Hamaiketakoa. Anoetaldea Villabona-Aiztondoko berriak Jon Mirandarekin.
12:00. Entzuteko jaioak. Musika saioa.
16:00. Zebrabidea. Magazina.
18:00. Goizeko onena.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldetik
16:30. Azkoitiko Dantzari Txikia
17:30. Gaurkoan Tolosaldetik
21:30. Gaurkoan Tolosaldetik
22:00. Ur eta Lur
22:30. Ajoarrieroa.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amarotz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Itxura politarekin hasiko da eguna, baina, orduek aurrera egin ahala, okerrera egingo du. Goizean, erdi eta goimailako hodei dezente egonagatik, giro argia eta lasaia. Termometroa, eguneko erdiko orduetan, 20-22 gradu inguruan kokatuko da. Arratsaldetik aurrera haizea aldakortu, eta hodeiak nagusituko dira, zerua estaliz. Iluntze-gau partean euri zaparrada batzuk botako ditu.

Bihar. Giro ezegonkorra. Egun osoan zehar hodeiak nagusi, nahiz eta, tarteka ostarte batzuk ireki. Hodeiek euria utziko dute. Euri gehien eguerditik aurrera; tarteka, ekaitzak jo eta zaparrada mardulagoren bat bota dezake. Hala ere, goizean zer edo zer bustiko du. Haizea, goizean hegoekialdetik; arratsaldean ipar ukitua hartuko du. Termometroaren maximoak 20-22 gradu bitartean.

TOLOSALDEKO ATARIAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

HARAGI
"HARAGIA PUNTU-PUNTUAN: ASTEBURUA DASTAKETAZ JOSIA DATOR!"
Maiatzak 11 eta 12, Tolosako Euskal Herria Plazan.

TXOMIN PARRILLA EUSKADI
Behi errea (lehen aldiz egingo du).

YILMAZ TURKIA
Cag Kebag arkume marinatua eta Kokorec arkume errea.
DIEGO PÉREZ SOSA URUGUAY
Txerrikume adobatu errea, keztatutako ananaren ozpin-olioarekin.

CAROLINA CARRIEL & ISADORA DÍAZ TXILE
Arkumea makil erara, bizigarri txiletarrarekin.

haragi.eus